

ERASMUS EGONALDIAREN LABURPENA(UDINE)

Aritz Markes

Orokorrean nire egonaldian zehar oso ondo pasatu dut, hala ere, hiri hau ez diot gomendatzen ikasteaz gain gauean ibiltzea gustatzen zaien pertsonerik, ez baitago ``Night life``-ik. Hala ere, bidaiatzea gustatzen zaienez, Udine oso ondo kokatuta dago; izan ere, autobus zein kotxean (kotxea alkilatzea gomendatzen dut, merkea eta autobusa baino erosoagoa baita) ordu batera, Austria, Kroazia eta Slovenia aurkitzen dira. Horretaz gain, trenetan ordu ta erdira bi aeroportu aurkitzen dira, zeinak hegaldi merkeak dituzten hainbat herrialdetara, hala nola, Bulgaria, Polonia, Hungria... Bidaiatzeaz gain, hainbat aktibitate egiteko aukera daude, batez ere, mendiarekin lotutakoak. Biziki gomendatzen dut mendira joatea eta elur garaian sky edo snow egiten joatea.

Unibertsitateari dagokionez, irakaskuntza metodoa, Euskal Herrikoaren aldean oso desberdina da. Ia gehiena teoria da eta ebaluaketa sistema azken ahozko zein idatzizko proba batean oinarritzen da. Hala ere, irakasle gehienak (ez guztiak) laguntzeko prest daude, ikasteko baliabidea ingeles zein gaztelaniaz hornituz. Ingeles mailari dagokionez, ez daukate ingeles maila oso altua eta oso erraz ulertzen da dena. Gainera, orokorrean, ez dute klasetik kanpo egiteko lan eta proiekturik bidaltzen.

Alojamenduari dagokionez, urte osorako ez bazoaz oso zaila da pisu bat aurkitzea ez baitaude 6 hilabetetarako alkilatze prest eta, beraz, erresidentzia batera joatea gomendatuko nuke (Renati Campus, Udine 1.0...)

Informazio hau nahiko orokorra da, beraz, ezer gehiago nahi izanez gero idatzi 689924572 tlf. zenbakira.